



OPARIRIK EDERRENA

Iñaki Zubeldia

Inma Mendiolaren marrazkiak

Desclée De Brouwer



Mikel, zortzi
urteko mutikoak,
animaliak asko maite
zituen. Larrinagan
bizi zen gurasoekin.
Herriko beste ume
guztiek in batera
joaten zen eskolara
eta egun haietan
egundoko



zurrunbiloa zebilen
gelan, Gabonetarako
jaiotza prestatzen ari
baitziren.

—Andereño,
andereño, hemen
daukat zilarrezko
papera ibaia egiteko
—esan zion Mikelek
Elene andereñoari.



—Ipini hortxe, Mikel,
zubi azpian, dotore-
dotore geldituko da
eta -erantzun zion
andereñoak, gelako
umeen zalaparta eta
urduritasuna
kontrolatu ezinik.

Umeak eurak ari
ziren lan guztia
egiten: buztinezko



eta plastilinzako
irudiak, egurrezko
etxetxoak eta zubiak,
koloretako
zelofanekin argi
gorri, urdin,
berdeak..., zilarrezko
paperekin aintzirak
eta ibaiak,
goroldioarekin
zelaiak eta

